



**2023KO MAIATZAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren zortzian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko apirilaren 17an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren, premiak eraginda eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura epe laburrean ospatuko ez zenez, alkatetzaz onartutakoen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

III.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2023ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 28 zenbakidun fakturen zerrenda, EHUN ETA HIRU MILA SEIEHUN ETA LAU euro ETA HOGEITA HAMAIKA zentimokoa (103.604,31 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

**IV.- ZUBIZKITZA AUZOKO 1. FASEA BERRURBANIZATZEKO OBREN KONTRATAZIO ESPE-
DIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-**

Udal honen eskariz, Soroa Arquitectos S.L.P.ko Miguel Angel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektuek, Zubizkitza auzoko 1. Fasea berrurbanizatzeko proiektua idatzi du-
te.



Proiektuaren xedea Zubizkitza auzoaren zati bat berrurbanizatzea da, zehazki gerontologikoaren eraikinaren aurreko pasealeku nagusia berritzea, baita auzoko 51-74 zenbakietan dauden etxebizitzetara eragiten dieten espaloiak eta azpiegiturak ere.

Proiektu honen aurrekontua 229.020,53 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren, eta hirigintza batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jarri da eta tokiko gobernu batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Zubizkitza auzoko 1. fasea berrurbanizatzeko proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

V.- GOIERRI FUNDAZIOARI 2023KO EKARPENA.-

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bertan dauden udalerriek egin beharreko 2023ko ekarpenen zehaztasuna bidali du. Bertan adierazten da ekarpen horiek eskolako inbertsioetarako eta LHko (Lanbide Hezkuntza) gastuetatik udalei dagokion zatiari aurre egiteko direla, eta baita ere esaten da ekarpen hauek biztanle kopuruaren arabera banatzen direla.

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioak bidalitako zehaztasunaren arabera, Lazkaoko Udalarari 2023 urtean 45.468 €-ko ekarpena dagokio.

Hau honela, eta gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu batzarrak, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioari 2023 urtean egin beharreko BERROGEITA BOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI euroko (45.468 €) ekarpena onartzea erabaki du.

VI.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-



22-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua handitzea 2023ko maiatzaren 25tik aurrera egunean ordu betetik lau ordura, onuradunaren osasun egoera okertu den bitartean. Ekarpena % 100ekoa izango da.

**LAZKAOKO
UDALAK**

22-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea 2023ko maiatzaren 25tik aurrera egunean ordu erdiz, onuradunak eskatuta.



LAZKAOKO UDALA

- 23-11-03 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko apirilaren 3an astean 3 orduz, laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 61ekoa izango da.
- 23-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko apirilaren 21etik astean 2 orduz, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 48koa izango da.
- 23-11-05 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko maiatzaren 5ean, astean 2 orduz, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 78koa izango da.
- 23-11-06 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko apirilaren 19an, astean 2 orduz, etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 2koa da.
- 23-11-07 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea 2023ko martxoaren 16an, astelehenetik ostiralera 4 ordu eta baja apirilaren 21ean egoitzan sartzeagatik. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 23-01-003 zenbakidun esped.: Alokairu eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea apiriletik, dirusarreretan aldaketak egon direlako.
- 23-01-006 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 40 € ematea urtarrietik abendura eta lehen mailako premietarako 529,26 €-ko dirulaguntza ematea apirilean. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 23-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 53,65 € ematea apiriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 145 €-ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eman daitekeenaren % 58 da.

Esku-hartze proposamena.-

- 23-15-01 zenbakidun esped.: balorazio esku-hartze familiarra egitea eta hura egiteko 4.202 €-ko aurrekontua onartzea.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordearen proposamenaren aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

Euskara ikasten ari direnei.-



LAZKAOKO
UDALA

2022/2023 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bakarra izan da eta emango zaiona 623 € dira.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2023ko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VIII.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- San Benito ikastolako ikasleei.-

San Benito ikastolako batxilergoko lehen mailako ikasleei, San Prudentzio jaietan antolaketa lanetan laguntza emateagatik 600 €-ko dirulaguntza ematea.

- Lazkaoko txistulari taldeari.-

Lazkaoko txistulari taldeari 59,90 €-ko dirulaguntza ematea.


IX.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023ko apirilean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea:

| MERKATARIA | GUZTIRA |
|--|---------|
| NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ) | 5.285 € |
| NAGORE COLORADO...CB (MANAKO) | 1.905 € |
| XABIER BARANDIARAN AUZMENDI (OSATU) | 930 € |
| ALBERTO SUKIA GARMENDIA(SUKIA HARATEGIA) | 1.280 € |
| AMAIA SORAZU ZULAIKA (EKILORE) | 285 € |
| GERRIKO SL | 350 € |
| OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI) | 245 € |
| ARANTXA FERNANDEZ GONZALO (GAZI GOZO) | 885 € |
| OLATZ RISCO URSUA (PARAFARMAZIA) | 215 € |
| IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA) | 575 € |





LAZKAOKO UDALA

| | |
|--|-----------------|
| JUANA PANIAGUA FRANCISCO (GURE GALTZERDIA) | 85 € |
| JAUREGI ELEKTRIZITATEA | 2.350 € |
| MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI) | 805 € |
| LIERNI FDEZ. CARRERO (NARE) | 555 € |
| JON SANTOS MARTIN | 85 € |
| GUZTIRA | 15.835 € |

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik egingo da.

- Merkatariei 2023ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2023rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

| MERKATARIA | GUZTIRA |
|-----------------------------|----------------|
| Pero Luis Uranga Mendizabal | 500 € |
| GUZTIRA | 500 € |

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.03.430.00 partidatik egingo da.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaituatzat jo du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA